

MEMENTOAK

-I-

Eta bat-batean urki enbor zuria
harrapatu dute nire begiek
hiriburuaren erdian.

Eta konturatu orduko erori dira,
haize finak eraginda,
bihotz itxurako hosto orlegi txikiak.

Eta leun sumatu dut leun aurpegian
halako hosto baten musu fresko eta arina.

Eta orduan geldi geratu da guztia,
halabeharrez bizkorregi behar zuen tokian.

Eta halaxe izan dut, estreinako, pentsatzeko astia...

-II-

Behingoz, espaloiko oinak besterik ez ditut aurrean.
Ezin asmatu zenbat dauden tartean.
Askotarikoak izan arren, denak ere oin azken finean.
Joan-etorrian batzuk, geldi besteak,
bizitzako gorabeheretan denak.

Nireak ere badoaz taberna zaharrera,
zain baitut gosari ederra,
eguneroko errutinarako bidean...
Baina ortozik dauden oinek deitu didate arreta:
Oin zigortu, nekatu, ahul... babesik gabeak!

Kale-kantoiko agurea!
Lurrean jarrita, zangoak luzatuta, diru eskean dago emakumea.
Otzaran bost txanpon ez eta aurpegian irribarrea!
Modernitatearen alderik ilunenean,
irribarreak salatu nahi ditu espaloi bereko zenbait oinen egoera.

-III-

Galdu da zurrunbiloan azken azukre-koskorra,
zuria kafe ilunaren gainean,
eta ezin asmatu zenbat denbora
iraungo duten puspulu txikien anpuluek.

Bira eta bira, koilaratxo gaixoak
ba ote daki zer egin duen?
Hortxe dago ezjakintasunaren koska,
kanpotik eragindako mugimenduen errua.

Eskuek goitik behera igurtzi dute lanbrotutako leihoa
kaleko goiz hotz gordinean, tabernako bero gozoan,
kontraste gehiegiren erdian azkenean ageri da lotza,
konplizitatearen oroimen ezkuta ezina.

Leihoko tanta irristakorrak
arimaren alderik sakonenean bezala,
astiro sartu zait hari musikalaren leloa
oilo-ipurdiz jantzitako azalean.

Konturatu orduko kafea dastatu dut ahoan,
telebistako irudietan galdu nahian begiak,
baina gozoa gazi bihurtu zait behingon.

-IV-

Tranbia hartzeko astia
nahiko nukeen arren,
alferrikako ahalegina
bazter uztea izan da onena.

Gaur ez dut lasterka egingo.
Gaur ez naiz atzokoa.
Aspaldiko autobus geltokira
gerturatuko naiz lasai.

Bidean doazen autoen argiek
min egin didate begietan,
min bozina-hotsak belarrian.
Ohikoa ezezagun bihurtu da.

Baretu denean haize fina,
joan zaidanean hotz-arrara,
bakarrik geratu naiz kalearen erdian,
sumatu ditut euri-tantak.

-V-

Babes bila nenbilen horretan
ogi-pusketa erori da nire oinetara,
eraikin zahar baten mentsula batetik:
bertako larre-txorien janari zena.

Hego bustien pisua gorabehera,
atzetik etorri da larre-txori saltaria,
mokoan hura hartu eta eramateko,
dardarka dauden enparauei.

Segundoen joan-etorri etengabea,
arrosu berritan gose sentitu naiz,
gose mementoak aprobetxatzeko,
atxiki eta behin betiko nireak egiteko.

Autobusaren kristal atzetik
desberdin ikusten da orain hiriburua,
patxadaz noalako aurrera,
bestelako ogi-pusketa bilatzera.

F. Javier Arrieta Idiakez